# ELKAR HOBETO EZAGUTUZ

TXULALAI

Bizitza osoan gauza bakarra jan ahal izango bazenu, zein izango litzateke?

Pilula bat hartu eta adin batean geratuko bazina, zein adin litzateke? Zergatik?

Zein da zure jolas gogokoena?

Zer uste duzu dela garrantzitsuagoa gurasoentzat, notak edo ondo portatzea?

# Nolakoa izango litzateke zure egun perfektua?

# Gozoa ala gazia gustatzen zaizu gehiago?

Hagaxka magiko bat aurkituko bazenu, zer egingo zenuke harekin?

# Zer jakin/ikasi nahiko zenuke?

Zer opari jaso nahiko zenuke?

Nor da gehien miresten duzun pertsona?

Zer egiten duzu ondo besteei irakatsi ahal diezuna?

# Zerk jartzen zaitu triste?

Zein filmetako protagonista izatea gustatuko litzaizuke?

Nori eman nahi dizkiozu eskerrak eta zergatik?

Zer gustatzen zaizu egitea euria denean?

Eskolako lagunez gain, zein beste lagun dituzu?

Zein da egin dizuten oparirik onena?

# Zer egiten duzu eskolatik irtetean?

Zer izan nahi duzu nagusia zarenean?

Zein uste duzu dela munduko asmakizunik onena?

Marraztu emotikono bat, gaur nola sentitzen zaren adierazten duenak.

Norekin aldatuko zenuke bizitza egun batez?

# Zerk edo nork egiten zaitu zoriontsu?

Arazo bat duzunean, norengan jartzen duzu konfiantza?

Zein hiru objektu eramango zenituzke hutsik dagoen uharte batera?

Zein da zure izen gustokoena neska zein mutilarentzat?

# Kontatu zerbait zure familiari buruz

Zer egingo zenuke lagun bat jotzen ari direla ikusiko bazenu?

10000 euro izango bazenitu, zertan gastatuko zenituzke?